

EUSKARA ETA BERONEN DIDAKTIKA I

Izaera: Teoriko-praktikoa

Ikasturtea: 2005/06

Irakaslea: Lutxi Larrazabal Bengoetxea

Tutoretzak: astelehen, astearte eta asteazknetan 12:00etatik 14:00etara lehenengo solairuko 17. bulegoan.

Telefonia: 94-6017576

Email-a: tlplabel@lg.ehu.es

1. Gaiak:

1. Hizkuntza eta hizkuntz gaitasuna
2. Testua, testuingurua eta testu motak
3. Gramatikaren osagaiak
4. Ahozkoaren ezaugarriak
5. Hizkuntzaren bariazioa
6. Euskara batua-estandarra-eskolako euskara
7. Gramatika gaiak: aditza, sintaxia, lexikoa
8. Fonologia
9. Testuak ebaluatzeko irizpideak
10. Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak

2. METODOLOGIA

1.- Irakasleak banaturiko lan-gai bilduma erabiliko da gida gisa.

2.- Norberaren biografia egin eta irakasleari emon.

3.- Bakarkako bi itzulpen egin behar dira lauhilabete bakoitzean: bat hizkuntzari buruz eta bestea hezkuntzari buruz eta ikaskideen aurrean azaldu ahoz (irakasgaiaren azken notan puntu biren balioa izango du).

4.- Bakarkako gogoeta bi egin behar dira lauhilabete bakoitzean eskolako fotokopistegian irakasleak utzitako artikuluen ganera: (irakasgaiaren azken notan puntu biren balioa izango du).

1.- “Irakurmena eta euskal fonologiaren arazo batzuk” Iñaki Gaminde.

2.- “ Hizkuntz aldakortasuna eta identitatea” Estibaliz Amorrortu.

5.- Irakaslearen edo/eta ikasleen azalpenak ere erabiliko dira.

6.- Taldekako lanak ahoz agertu beharko dira eskolan beste ikaskideen aurrean.

3. EBALUAZIOA

Ikasturtearen erdialdean idatzizko azterketa egingo da baina irakasgaiaren azken nota ikasturte amaieran ahozko eta idatzizko azterketaren batuketa izango da, guztira 6 punturen balioa izango dute, hiru ahozkoak eta hiru idatzizkoak gehi ikasturtean eginiko lanak, hauek 4 punturen balioa izango dute, guztira 10 puntu.